servicio navarro de empleo - nafar lansare

# JARRAIBIDEAK: MUGIKORRERAKO APP

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aplikazioaren funtzionalitate erabiltzeko, azken bertsioa jaitsi behar duzu.




- Google Play - Android: http://bit.ly/2KI7Om3
- iOS - App Store : https://apple.co/2tRkRv3

**1.- Sakatu "Erregistratu erabiltzaile berria".**

Sartzen zaren lehen aldia bada, alta eman behar duzu.




**2.- Sar itzazu eskatzen diren datuak.**

NAN/AIZ, helbide elektronikoa, telefonoa, posta kodea eta jaioteguna: zure enplegu eskaeran agertzen diren berberak izan behar dute.

Jar zaitez harremanetan zure agentziarekin:

- ez bazara oroitzen zer helbide elektroniko eman zenuen.
- zure posta kodea aldatzeko.

Eska ezazu hitzordua zure agentzian telefono zenbakia aldatzeko.

**3.- Pasahitza:**:

Ondotik, **pasahitz berri bat** pentsatu behar duzu: idatzi nonbaiten, eta sar ezazu.
Pasahitzak honako ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Gutxienez 8 karaktere.
- Gutxienez letra larri bat, letra xehe bat, zenbaki bat eta sinbolo bat.
- Ezin da karaktere berdina errepikatu bata bestearen ondoan.
- Gaur egun karaktere berezi hauek erabil daitezke: #@$!%*¿?& etc

Adibidez, hasierako letrak, puntuak eta data garrantzitsu bat erabil daitezke.

pasahitzaNEZ2021*
JuanSNE1981?
@AmaiaEnplegu21

Erregistratzean, SMS bat jasoko duzu, izapidea amaitzeko sartu behar duzun kodearekin.

SMSrik iristen ez bazaizu, egiazta ezazu datu guztiak ongi markatu dituzula. Akatsen bat badago, harridura-marka hau agertuko da: ¡.

**4.-**Zure mugikorrak horretarako teknologiarik badu, **aktibatu hatz-marka** hurrengoetan hala sartzeko.

**5.- Ez bazara pasahitzaz oroitzen**, joan zaitez pasahitza aldatzeko aukerara. Pasahitza berria sartu beharko duzu, eta, ondoren, SMS bidez iritsiko zaizun kodea.

Edozein akats edo gorabehera badago, hartu hitzordua 848424500 telefonoaren edo https://www.navarra.es/eu/enplegua webgunearen bidez.